

Euskaraz Bizi eguna Azkainen

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZEK ekainaren 11n egingo du Azkainen (Lapurdi) Euskaraz Bizi eguna. Euskararentzako lehentasunezko estatusa eskatuko dute eta euskaldunei euskaraz bizitzeko hautua egiteko deia zabalduko die.

Euskalterm eraberritua

EUSKALTERM, Terminologia Banku Publikoa, eraberritu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Hemendik aurrera, besteak beste, egunero eguneratuko dute bankua

eta erabilgarriagoa izango da. Erabiltzaileek iradokizunak egiteko aukera izango dute. Terminologia bankua eraberritzeaz gain, hamalau hiztegi terminologiko aurkeztu ditu HPSk.

“Hizkuntzen Estandarizazioa” liburua

GARABIDEK iaz hizkuntzen berreskurapena jorrazteko ireki zuen biderei segi dio eta bigarren liburua eta 20 minutuko DVDa kaleratu ditu. Hizkuntzak berreskuratzeko estandarizazioak duen garrantzia azpimarratzeko euskara batuaren sorreraz eta beharrez ari da liburua.

BAHEA

[Paula Kasaresek gipuzkoaeskara.com-en esanak](#): “Historikoki mundu zabalean gorren zeinu hizkuntzak gutxietsi eta zokoratu dituzte, baita debekatu ere zenbait garai eta herritan. Halere, zeinu mintzaren hizkuntzatasuna frogatzen zuten ikerketekin batera gorrek komunitate izatearen konzientzia linguistikoa, hau da, beren buruaren gaineko ikusmolde soziokulturala, garatu dute. Gorrek zeinu mintzaira beren berezko hizkuntzatzat aldarrikatzen dute eta zabaldua da gorrak hizkuntza gutxiengo bat gehiago direla defendatzen duen ideia. Finlandian, adibidez, suomiera eta suediera dira hizkuntza ofizialak baina 1995eko Konstituzioak zeinu mintzaira gutxiengo hizkuntzat hartu zuen, (...). 2007an Espainiako Gobernuak zeinu hizkuntzak aitortzen dituen 27/2007 Legea onartu zuen baina arau horrek espainiar eta kataluniar zeinu hizkuntzak baino ez ditu espresuki aipatzen. Euskal zeinu mintzaira oraindik ez da ofizialki onartu”.

[Bego Bitorika Sortzen Ikasbatuaz elkarteak](#) [Isabel Celaári, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuari, Berria esandakoak hiruleko sistema dela eta](#): “2011ko hasieran, iazko ikasturtean abiatutako esperientzia zabaldu nahi izan zuen, baina irailean izan zituen arazo berdinekin topatu zen: ikastetxeek ez zioten espero zuen erantzunik eman. Beraz, beraien eredu, eta proiektu izarra, saltzeko azpijoko bat asmatu zuten. Taldeka biltzen hasi ziren ikastetxeekin, eskaintza bereziak eginez: irakasle eta baliabide gehiago izango lituzkete, eta proiektuaren betebeharrak malguagoak izango lirateke. Ikastetxeetan ikasturte zaila izan dute, irakasle eta ordezkapenen murrizketa ikaragarriekin, eta bazekiten alde horretatik batzuk erakarriko zituztela”.

Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Mondragon Taldea eta Bankoa-Ipar Kutxa

Krisiaren testuinguruan, astero ez da izaten finantza eta ekonomia albiste onik Euskal Herrian. Horregatik, nabarmendu nahiko genituzke joan den asteak ekarri dizkigun bi notizia esanguratsu: Mondragon Taldeak etekinak eta lanpostuak berreskuratu ditu, eta Ipar Kutxak eta Bankoak banku entitate berria sortu dute. Finantza arloko euskal lurraldetasunaren egituraketarako, eta Mondragon Taldeak lanpostuak berreskuratzeko duen eragiteko gaitasunerako, bide onetik doazen albisteak dira biak ala biak.

Mondragon Taldeak (85.066 enplegu, horietatik 36.950 Hego Euskal Herrian) 178 milioi euroko etekinak izan zituen 2010ean, aurreko urtekoak hirukoiztuz. Industrian berreskuratu zuen enplegua, 1.378 lanpostu gehiago hain zuzen ere. Nazioartean hedatzearen eta berrikuntzaren alde egin zuen beste behin ere. Eraitza on horiek ez ditu izan neurri ekonomiko eta finantzarioengatik soilik, baita langileek onartutako neurri sozialengatik ere. Mondragon Taldeko industria arloak hobetzen badu, bere inguruak ere hobetuko du, besteengan eragiteko duen ahalmenagatik.

Bi euskal finantza entitate txikik, Bankoak eta Ipar Kutxak, erabaki dute euskal banku erakunde berria sortzea. Credit Agricole frantsesa buru duela, eta egoitza sozialak Bilbon eta Donostian dituela, Euskal Herri osoan arituko da. 132 sukurtsal eta 667 langile izango ditu. Bi erakundeek beste batzuen kontrakoa egin dute, aurrezki kutxa batzuk Espainiako Estatura hedatu baitira –BBK Cajasurrekin batu zen eta CAN Banca Cívicarekin–. Ea Ipar Kutxaren eta Bankoaren mugimendu honen buruan, noizbait, euskal aurrezki kutxen fusioa datorren, eta horrela, Euskal Herriaren interesen zerbitzura egongo den finantza erakunde indartsua sortzen den.

Juan Mari Arregi